

Ez dago batik birik gabe, gorputzik gogo barik edo leun gabeko gogorrik. Ordenagailuak ere badaiki leunaz (**softwareaz**) eta gogorraz (**hardwareaz**).

Bi izan litezke ere ordenagailu modernoaren guraso (Babbage-n baimenaz). Leun-leun proposatu zuen Alan Turing matematikari eta filosofo Britaniarrak 1936.ean bere konputazio eredu, *Turing-en makina*: zinta infinitu batean arau taula baten arabera sinboloak irakurri eta idazten zituen kontzeptua. Gogorretik planteatu zituen aldiz Konrad Zuse ingeniari Alemaniarrak bere Z1, Z2 eta Z3 ordenagailuak 30 eta 40ko hamarkadetan, logika bitarrari eta Turing-en gogoei gorputza emanez, transistorerik gabe oraindik.

Harriak bezain malguak ziren lehendabiziko ordenagailuak, ezin beraien gogorik aldatu elementu fisikoak aldatu edo berkableatu gabe. Gordetako-programen ideiarekin aldatu zen guztia, berriz Turing, Von Neumann, transistorea... eta ordenagailuari arima sortu zitzaion, alderdi leuna: softwarea.

Konputazioaren historiak gogor jarraitu bazuen ere (IBM-701, Intel-4004, Motorola-68000, KIM-1, Pentium, etab.), leunaz entzun dugu gehiago ordenagailu pertsonala (PCa) sortu zenetik: sistema eragileak, Microsoft eta Apple, webguneak, Google eta Facebook... komunitate librezaleak ere leunetik egin du bide emankorragoa, softwareak eskaintzen dituen garapen, kopiatze eta lizentzia berezitasunak probestuz: Linux, Apache, Mozilla, etab.

Garai interesgarri hauetan badira baina makinatxo bat proiektu eta ideia, makinatxo eredu berrietan oinarrituta. Makinatxo hauek mundu zibernetiko leuna eta egunerokoan ukitu ditzakegun gogorak lotzen dituzte, edo garaiak gogortu ahala gauzak eraikitzekeo estrategia eta elkarrizketa banatu berriak sortu ordenagailuetatik haratago. Gogorra gogora ekarriz jarraituko dut zutabe honen hurrengo zenbakietan, beti ere etzikoa gaurkotu nahian eta bat-a tokatzen denean bi-an amesten.

Zabaldu:

- [Click to share on Twitter \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Facebook \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Telegram \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Pocket \(Opens in new window\)](#)